

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Tolosaldeko Mankomunitatea**

**Mancomunidad de Tolosaldea**

**2018**





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **AURKIBIDEA / ÍNDICE**

<b>LABURTZAPENAK</b> .....	<b>5</b>
<b>I. SARRERA</b> .....	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA</b> .....	<b>8</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK</b> .....	<b>9</b>
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	9
III.2 Langileria.....	9
III.3 Kontratazioa.....	10
III.4 Beste alderdi batzuk .....	10
<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>11</b>
<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>15</b>
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria .....	15
A.2 Aurrekontua eta aldaketak .....	15
A.3 Tasak eta bestelako sarrerak .....	16
A.4 Transferentziek eragindako sarrerak .....	16
A.5 Langileria-gastuak.....	18
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa .....	19
A.7 Balantzeko beste saldo batzuk .....	19
A.8 Kontratazioaren analisia.....	20
<b>ALEGAZIOAK</b> .....	<b>21</b>



<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>23</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>25</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>26</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	26
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	26
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>27</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	27
III.2 Personal.....	27
III.3 Contratación .....	28
III.4 Otros aspectos.....	28
<b>IV. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>29</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>33</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	33
A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....	33
A.3 Tasas y otros ingresos .....	34
A.4 Ingresos por transferencias .....	34
A.5 Gastos de personal .....	36
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones.....	37
A.7 Otros saldos del Balance .....	37
A.8 Análisis de contratación.....	38
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>39</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
6/2007 FA	6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako udalaz gaindiko toki erakundeak arautzen dituenak.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Tolosaldeko Mankomunitatearen (aurrerantzean, Mankomunitatea) 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Mankomunitatearen Balantzea, Ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua, Oroitidazkia eta Aurrekontuaren likidazio-egoera.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Honako 28 udal hauek:

Abaltzisketa	Andoain	Elduain	Leaburu-Txarama
Aduna	Anoeta	Gaztelu	Lizartza
Albiztur	Asteasu	Hernalde	Orendain
Alegia	Baliarrain	Ibarra	Orexa
Alkiza	Belauntza	Ikaztegieta	Tolosa
Altzo	Berastegi	Irura	Villabona
Amezketza	Berrobi	Larraul	Zizurkil

1997an Mankomunitatea osatu zuten, eskualdeko HHSak tratatu eta biltegitratzeko. 2007an Batzarrak Estatutuak aldatu zituen zehazteko Mankomunitatearen xede sozialak HHSak jaso, garraiatu eta tratatzea besarkatzen zuela. Azken zerbitzu hau Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak ematen du, Mankomunitatea bertako kide baita. Batzarra, Batzorde Iraunkorra, Lehendakaria eta Lehendakaria dira Mankomunitatea osatzen duten organoak eta nagusiki, kide diren udalek egiten dituzten ekarpenekin finantzatzen da.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **II. IRITZIA**

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

1. Mankomunitateak 2 zerbitzu-kontratu esleitu zituen 379.218 euroren zenbatekoan eta lizitazioa bere profilean eta GAOn argitaratu zuen; ez, ordea, EBAOn eta BOEn, nahitaezkoa dena, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz (ikus A.8).

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoan adierazitakoa alde batera, Tolosaldeko Mankomunitateak zuzentasunez bete du 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### **II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, Tolosaldeko Mankomunitatearen Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten du; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arautegian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Estatuek zehazten dute ekarpenak kalkulatuko direla sarreraren bidez gastuak berdintzeko moduan. 2018an Mankomunitateak 660.731 euroren aurrekontuko superabita izan zuen eta 2018ko abenduaren 31ko geldikin erabilgarriak 2,9 milioi euro egin zituen. Honi dagokionez, hasiera batean onartutako ekarpenen osagai finkoa (HHSak biltzeko kostua eta gastu orokorrak) ez zen aldatu Mankomunitateko sarrera eta gastuen egiazko bilakaeraren arabera eta ondorioz, 528.293 euroren desbideratze positiboa gertatu zen, aurrekontuko superabitaren osagai nagusi dena (ikus A.4).

Udalen artean ekarpenak banatzeko Estatutuek aurreikusten duten irizpide bakarra biztanle kopurua da, gastu orokorretarako 2018ko ekarpenetan baliatutakoa (832.575 euro). Ekarpenen gainerako 3,9 milioientzat, berriz, 2018an Estatutuetan aurreikusi gabeko beste bi irizpide baliatu ziren. udal bakoitzean sortutako HHSak kilotan (errefusa, organikoa, plastikoa eta papera) eta HHSen bilketa zerbitzuaren kostu balioetsia.

Ekarpenak kalkulatzeko sistema zehaztasun handiagoz arautzea komeniko litzateke.

- 2018ko ekitaldirako aurrekontua hasiera batean Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 17an onetsi zuen; ordea, arautegiak behin betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- 2018an amaitu zen HHSak biltzeko kontratuko ibilgailuak eta edukiontziak Mankomunitateari eman zitzaizkion eta kontratista berriaren eskura jarri, zeinak beste berri batzuekin ordeztu behar baitzituen. Komenigarria zatekeen elementu hauek jasotzeko ekintza formalizatu eta ekipoen alta hondar-balioarekin kontabilizatzea.

#### III.2 LANGILERIA

- Mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen 2018ko ordainsariak % 1,75 handitzea, erabaki horri GAOn publikotasunik eman gabe.

### III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 3 kontratu nagusiak aztertu ondoren -13,5 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.8):

- Guztira 379.218 euroan esleitutako 2 kontratutan (1 eta 3 espedienteak) esleipen-irizpide orokorrak baliatu ziren, balioztatuko liratekeen alderdiak eta/edo baloraziorako aplikatu beharreko sistema zehaztu gabe (A2 akatsa).
- Bi garbiguneetako edukiontzia garraiatzeko kontratua (282.418 eurorena) esleitzen zuen ebazpenaren jakinarazpenek ez zituzten jasotzen egindako hautaketa justifikatuko zuten argudioak (B akatsa).

#### Alderdi orokorrak eta erosketa txikiak

- 3 kontratuetan prezioa balioztatzeko baliatutako formulak murriztu egin zuen faktore honen egiazko balioa, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez.
- Mankomunitateak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak saihestearren.
- Beste erosketa batzuk berrikustean azaleratu da 78.620 euroan esleitutako bi zerbitzu zuzenean esleitu zirela (olioaren eta hondakin arriskutsuen tratamendua), prozedura ireki erraztu laburtu bidez egin beharrean.

### III.4 BESTE ALDERDI BATZUK

- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispidea izateari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Horrekin batera, Mankomunitatearen webgunean informazioa jaso behar zatekeen gobernu-organoei buruz eta aurrekontuen eta egikaritzaren datu ekonomikoei buruz.
- Mankomunitatearen Estatutuak 1997koak dira eta ez dituzte gaurkotu; horrek 6/2007 FAren 1. Xedapen Iragankorrak finkatutako urtebeteko epea urratzen du. 2018an Mankomunitatea Estatutuak gaurkotzeko prozesua abiarazi zuen eta 2019ko maiatzean aldaketa-proiektu bat onartu zuen, udalbatzei aurkezteko dena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV. URTEKO KONTUAK

##### 2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.		KOBRA.	GABEA	
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	1.304	-	1.304	1.024	817	207	79
4.- Transferentzia arruntak .....	A.4	4.752	-	4.752	4.716	3.056	1.660	99
5.- Ondare sarrerak .....	-	1	-	1	-	-	-	-
8.- Aktibo finantzarioak .....	-	-	66	66	-	-	-	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>6.057</b>	<b>66</b>	<b>6.123</b>	<b>5.740</b>	<b>3.873</b>	<b>1.867</b>	<b>95(*)</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulazterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			GASTUAK	ORDAINK.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			GABE	EXEK.	
1.- Langileria-gastuak .....	A.5	130	-	130	125	125	-	96	
2.- Ondasun arrunten eta zerb. kontrat. ....	A.6	5.883	7	5.890	4.960	4.478	482	84	
4.- Transferentzia arruntak .....	-	2	-	2	-	-	-	-	
6.- Inbertsio errealak .....	A.6	42	59	101	60	60	-	59	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>6.057</b>	<b>66</b>	<b>6.123</b>	<b>5.145</b>	<b>4.663</b>	<b>482</b>	<b>84</b>	
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>595</b>				

##### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.	BALIOG.	KOBRA./	AZKEN
	ZORRA		ORDAIN.	
Zordunak .....	1.226	-	1.223	3
Hartzekodunak .....	962	-	962	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>				



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	5.740
Obligazio aitortuak.....	(5.145)
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>595</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>595</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	65
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>660</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 18.2.1EAN .....	2.353
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza.....	595
<b>DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 18.12.31N</b>	<b>2.948</b>
Diruzaintza .....	1.562
Aurrekontuko zordunak.....	1.870
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	31
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(482)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(33)
Kaudimen-gabez. zuzkidura.....	-
<b>DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA 18.12.31N</b>	<b>2.948</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina .....	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA</b>	<b>2.948</b>
<b>ZORPETZEA 18.12.31N</b>	<b>-</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**BALANTZEA 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N**

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2018	2017	PASIBO	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA		1.931	1.969	ONDARE GARBIA	4.879	4.322
lbilgetu materiala .....	A.7	1.931	1.969	Ondarea .....	205	205
				Ekitaldi itxien emaitza .....	4.117	3.785
				Ekitaldiaren emaitza.....	557	332
				PASIBO EZ-ARRUNTA	20	26
AKTIBO ARRUNTA		3.463	3.363	PASIBO ARRUNTA	495	984
Kudeaketa eragiketeng. zordunak ....	A.7	1.870	1.226	Kudeaketa eragiket. hartzekodunak.....	482	962
Kobratzeko beste kontu batzuk .....		17	15	Ordaintzeko bst. kontu batz. ....	7	16
Administrazio publiko hartzekodunak		14	9	Administrazio publiko hartzekodunak..	6	6
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....		1.562	2.113			
AKTIBOA, GUZTIRA		5.394	5.332	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	5.394	5.332

**B. 2018 eta 2017KO EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUAK** Euroak milakotan

	2018	2017
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak .....	4.716	4.338
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	218	416
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b. ....	806	722
Langileria-gastuak .....	(126)	(112)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	-	(2)
Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak.....	(4.959)	(4.924)
lbilgetua amortizatzea .....	(93)	(106)
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>562</b>	<b>332</b>
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk.....	(5)	-
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>557</b>	<b>332</b>
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA</b>	<b>557</b>	<b>332</b>





## **ERANSKINAK**

### **A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA**

Tolosaldeko Mankomunitatea toki erakundea da, oinarrizko alderdietan TAOALek arautua eta honako lege hauek aldarazitakoa: 57/2003 Legeak, Toki administrazioa eraberritzeko eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak; eta 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak.

6/2007 Foru Arauak elkartzeko eskubidea aitortzen die udalei, eskumeneko obra eta zerbitzuak modu bateratuan gauzatu ahal izateko, eta horien jardunbidea arautzen du elkartutako udalen Osoko Bilkurek onartutako Estatutuen bitartez. Mankomunitatearen Estatutuak 1997an onartu zituzten eta helburua da mankomunitatean elkartutako udalen HHSak tratatu eta biltegitratzea, udalen euren ekarpen bitartez finantzatzen dela.

Ekitaldian ezargarrria den ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau izan da:

- 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.

### **A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK**

2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra 2018ko urtarrilaren 17ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta behin betiko onespena 2018ko otsailaren 22an eman zen argitara.

Aurrekontua aldatu zen aurreko urteko kredituak txertatzeko, 66.506 euroren zenbatekoan, eta, gainera, 2.000 euro aldatu ziren erosketen kapitulutik inbertsioen kapitulura.

Gastuen aurrekontua % 84 egikaritu zen eta azpimarratzekoa da zabor-bilketa zerbitzuaren gastuetan izandako desbideratzea, aurreikusitakoa baino 871.220 euro txikiagoa izan baitzen, izan ere aurrekontuan aurreikusi zen kontratu berria ekitaldi osora luzatuko zela. Sarrerak % 95 egikaritu ziren eta 595.375 euroren aurrekontuko superabita izan zen.

2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2019ko otsailaren 8ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2019ko maiatzaren 20ko Udalbatza bitartez.

### A.3 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Ondotik zehazten dira kapituluaren sarrerak:

		Euroak milakotan
KONTZEPTUA		Diru-sarrera
Ecoembes: ontzien eta enbalajeen birbalorizazioa.....		798
Kartoi eta paper salmenta .....		204
Bestelako sarrerak eta beste tasa txikiago batzuk.....		22
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>1.024</b>

Ecoembes irabazi asmorik gabeko enpresa da, balorizatzeko ontzien eta enbalajeen gaikako bilketa-sistemak antolatzea xede duena. Ecoembes finantzatzen da ontzi horiek erabiltzen dituzten enpresen ekarpenekin eta toki erakundeak konpentsatzen ditu gaikako bilketak eragindako kostuen ordainetan.

### A.4 TRANSFERENTZIEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2018ko udalen ekarpenen xehakapena:

					Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Ekarpenaren zenbatekoa	Banaketa	Aurrek.	Diru-sarrera	
Gastu orokorrak-langileak, inbertsioak, etab.....	Aurrekontua	Biztanleak	833	833	
HHSen bilketa (kontratu nagusia).....	Esleitutako zenbat.	Udalaren kostua	<b>(*) 3.450</b>	3.101	
Hondakinen tratamendua-Gip.Hond.Konts. tasa.....	Kostu erreala	kiloak	1.774	1.766	
<b>Mankomunitatearen kostuen guztizko partziala</b>			<b>6.057</b>	<b>5.700</b>	
Mankomunitatearen sarrerak (3 eta 5 kapituluak)	Sarrera erreala	kiloak	(1.305)	<b>(**)</b> (984)	
<b>GUZTIRA</b>			<b>4.752</b>	<b>4.716</b>	

(\*) Kontratu berriaren lizitazioaren zenbatekoa aurrekontuan jaso zen.

(\*\*) 2018an 1.024.274 euroren diru-sarrerak aitortu ziren, baina ez ziren osorik banatu.

2018ko ekarpenak onesteko erabakiak, aurrekontua onestearekin batera hartutakoak, HHSak biltzeagatiko gastu orokor eta kostuen ekarpen finkoa zenbatetsi zuen, hurrenez hurren, 832.635 eta 3.004.230 euroren zenbatekoan. Hondakinen tratamenduaren (Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren tasa) eta eskuratutako sarreraren kontzeptuko ekarpen aldakorrak ez ziren horiek onartzeko erabakian zehaztu eta kitatu ziren egiaz izandako gastu eta sarrerak aintzat hartuta.

Udalen arteko banaketa egiteko honako datu hauek hartu ziren aintzat: biztanle kopurua, entitate bakoitzaren kostu zenbatetsia eta udal bakoitzean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak tratatutako kiloak eta gaikako bilketan eskuratutakoak (ontziak eta papera).

Estatutuek adierazten dute ekarpenak Batzarrak onartu beharko dituela (23. artikulua) eta kopuru horrek bide emango duela sarreraren bidez gastuak berdintzeko (56.1 artikulua). Udalen arteko banaketari dagokionez, udalerrri bakoitzeko biztanleak hartu behar dira aintzat. 2014an Batzarrak erabaki zuen Estatuaren definizioa garatzea, ekarpen finkoa eta aldakorra bereiziaz, baina zehaztu gabe aurre egin beharreko gastuak aurrekontuan jasotako haiek edo egiaz eragindakoak diren.



## Ekarpén finkoa: aurrekontuan jasotako kostuak eta errealkak

Ondoren, ekarpén finkoak kalkulatzeko aintzat hartutako zenbatekoak alderatu dira (aurrekontuan jasotako zenbatekoa edo balioespenak) 2018an izan duten egiazko kostuarekin:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Aurrek.	Gastua
Langileria.....	130	125
Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa – konponketak, hornidurak, hainbat gastu, etab.....	355	299
Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa – kopuru txikiagoko tratamendu eta bilketak.....	304	305
Finantza gastuak eta dirulaguntzak.....	2	-
Inbertsioak.....	42	(**) <b>1</b>
Gastu orokorrak.....	833	730
Zaborrak biltzeko kostua (kontratu nagusia).....	(*) <b>3.004</b>	<b>2.579</b>
<b>EKARPEN FINKOA GUZTIRA</b>	<b>3.837</b>	<b>3.309</b>

(\*) Aintzat hartuta 2017an kontratu zaharraren kostua eta kontratu berrirako aurreikusitakoa (lizitazio prezioa).

(\*\*) 2018ko aurrekontuko inbertsioen egikaritzea (aurreko urteetakoak txertatu gabe).

528.293 euroren aldea dago Batzarrak ekitaldi hasieran balioespenen arabera onartutako ekarpén finkoaren eta egikaritzaren egiazko datuak baliatuta eskuratutako ekarpén finkoaren artean. Alde nagusia bilketa kontratuaren kostuak ekarri du, izan ere kontratu zaharrak 2017an eragindako kostua aintzat hartuta kalkulatu zen; ordea, egiazko kostua txikiagoa izan zen, emandako ekipoen amortizazioa amaitua zegoelako. Kontratu berriaren aurrekontua, berriz, lizitazio zenbatekoa izan zen, baina % 5eko beherapenarekin esleitu zen eta irailaren 1ean sartu zen indarrean.

## Udalak HHSak jasotzeko kostua

HHSak biltzeko kontratu berria 2018an esleitu zen urtean 3,3 milioi euroren kostuarekin eta zenbait kalkulu egin zen udal bakoitzean zerbitzuaren kostua balioesteko, ekarpénak kalkulatzeko baliatuko dena:

Udala	Biztanleak eta euroak milakotan			
	Biztanleak	%	Kostu balioetsia	%
Alegia.....	1.726	2,78	168	5,12
Andoain.....	14.618	23,58	766	23,39
Anoeta.....	2.034	3,28	144	4,39
Asteasu.....	1.533	2,47	106	3,25
Ibarra.....	4.172	6,73	279	8,51
Irura.....	1.862	3,00	154	4,69
Tolosa.....	19.525	31,50	869	26,54
Villabona.....	5.881	9,49	258	7,87
Zizurkil.....	2.976	4,80	210	6,42
Gainerako udalak.....	7.663	12,36	322	9,82
<b>GUZTIRA</b>	<b>61.990</b>		<b>3.276</b>	

Udal bakoitzak egin beharreko ekarpena zehazteko, kontratistak emandako zerbitzuei egotzitako langileen eta ibilgailuen (erregai eta mantentze-lana) kostua balioetsi da eta udal erabiltzaileen artean banatu da. Zerbitzu batzuetan banatu egiten da kostua dagokion hondakina jaso eta tratatzeko gunera eramatearen artean, bilketa eta hustuketa-lanaren kostuak irizpide bereziekin banatzearen: edukiontzia jasoaldiak eta egindako bidai kopurua:

Bilketa zerbitzua-sistema	Euroak milakotan			
	Udal kopurua	Bilketa	Hustuk.-lana	Guztira
Organikoa eta poltsa bidezkoa .....	9	406	203	609
Errefusa-edukiontzia .....	24	148	65	213
Errefusa-atez atekoa .....	6	38	11	49
Papera eta ontziak - edukiontzia .....	26	338	81	419
Papera eta ontziak – atez atekoa.....	2	42	14	56
Dendak-kartoia .....	8	106	31	137
Industrialdeak .....	15			394
Tamaina handikoak, azokak eta metatuak .....	28			130
Edukiontzia garbitu eta mantentze-lana .....	28			362
Langile- eta ibilgailu-gastuen guztizko partziala				2.369
Egiturazko langileak, egoitza, aseguruak eta materialak				603
Egin beharreko inbertsioak				304
<b>GUZTIRA</b>				<b>3.276</b>

Egiturazko langileen, instalakuntzen eta inbertsioen kostuak udalen arabera banatzen dira langileen eta ibilgailuen gastuen ehuneko beretan.

## A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Gastu kapitulu honen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Gastua 2018	LANPOSTU KOP.	
		LZ	Langileak 18.12.31
Langile lan kontratudun finkoak .....	79	3	<b>(a) 3</b>
Programako bitarteko funtzionarioa .....	14	-	-
Ordainsarien guztizko partziala.....	93		
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	31		
Lan arriskuen prebentziorako zerbitzua.....	1		
<b>GUZTIRA</b>	<b>125</b>		

2 langilek lanaldi murriztua dute (% 50 eta % 86).

Langileen ordainsariek % 1,75 egin zuten gora, 2017an indarrean zeudenekin alderatuta.

Mankomunitateak osatu egiten ditu aldi baterako ezintasunagatik Gizarte Segurantzaren prestazioak, baina 2018an ez zen kontzeptu honengatik ordainketarik egin.



## Altak

Programako bitarteko funtzionario bati alta eman zitzaion 2018ko urtarrilaren 1ean eta baja 2018ko abenduaren 31n.

### A.6 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

2. kapituluaren erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; hona hemen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza .....	13	-
Bulegoko materiala.....	2	-
Hornidurak .....	9	-
Komunikazioak .....	10	-
Aseguru primak.....	9	-
Zergak.....	2	-
Hainbat gastu .....	38	19
Publizitatea eta propaganda .....	15	19
Gastu juridikoak .....	18	-
Bestelako hainbat gastu.....	5	-
Kanpoko enpresek egindako lanak .....	4.876	14
Zaborrak tratatzeko Gip.Hond.Konts. tasa .....	1.715	-
Zabor-bilketa - kontratua abuztuaren 31ra arte indarrean .....	1.517	-
Zabor-bilketa - kontratua abuztuaren 31tik aurrera indarrean (ikus A.9.) .....	1.061	-
Hondakinak garraiatzea 2 garbiguneetatik.....	141	-
Erabiltzaileei arreta eta informazioa emateko zerbitzua.....	98	-
Beste txiki batzuk .....	344	14
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak .....	1	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.960</b>	<b>33</b>

2018ko inbertsioek 59.961 euro egin zituzten eta inbertsio nagusia izan zen hondakin berezi eta arriskutsuentzat 3 etxola erostea 49.948 euroan, 2017an aurrekontuan jaso zen inbertsioa.

### A.7 BALANTZEKO BESTE SALDO BATZUK

#### Aktibo ez arrunta

Hona hemen 2018ko abenduaren 31ko Ibilgetu Materiala:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Kostua	Amort.metat.	Garbia
Andoaingo birziklatze gunean lursaila .....	1	-	1
Eraikinak (Andoain eta Tolosako birziklatze guneak eraikitzea) .....	1.353	(184)	1.169
Gai bereziak birziklatzeko edukiontzi eta etxolak .....	501	(164)	337
Kamioia eta trinkotzeko 2 ekipo .....	422	(61)	361
Beste batzuk (edukiontz. garbigail., egurra xehatzeko makina, kamioiet. ekipoak e.a.)	188	(125)	63
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.465</b>	<b>(534)</b>	<b>1.931</b>

2018ko abuztuan amaitu zen 2007an esleitutako zaborrak biltzeko kontratua, zeinak aurreikusten baitzuen Mankomunitateari ibilgailuak, edukiontziak eta zerbitzuari atxikitako beste izakin batzuk itzultzea. Mankomunitateak ez zuen eskualdatze hori erregistratu, izan ere esleipendun berriak gehenez 8 hilabeteko epean horiek ordezte aurreikusia zegoen. Kontratu berriak aurreikusten du 2 kamioi kontratua amaitzean eskualdatzea, 4 urte barru.

## Aktibo arrunta

Kudeaketako eragiketengatik zordunen saldoa, 1,9 milioi euro, 2018ko azken hilabeteetako ekarpenei dagokie, 1,7 milioi euro, eta paper-salmentagatik eta Ecoembesen likidazioengatik kitzatzeko dauden saldoei.

## A.8 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

KONTRATUA	ESLEIPENA			Subro- -gazioa	Gastua 2018	AKATSAK	
	Data	Prozed.	Zenbat.(a)			A	B
1. Hondakinak garraiatzea 2 garbiguneetatik (2 urte).....	abu-17	Irekia	282(b)	-	141	A1,2	B
2. 28 udaletan zabor-bilketa (4 urte).....	uzt-18	Irekia	13.103	41	1.061		B
3. Erabiltz. inform. eta zerb.-kontr. 2 hezitzaile (1 urte).....(c)	aza-18	Irekia	97	-	8	A1,2	
Aldaketa-errefortzua.....	mai-19		12				
<b>GUZTIRA</b>			<b>13.494</b>		<b>1.210</b>		

(a) BEZa sartuta esleitutako zenbatekoak

(b) Aleko prezioak: esleipen-zenbatekoa, 2018ko egiazko egitaritza datuekin balioetsia.

(c) Pleguek 4 luzapen arte egitea aurreikusten dute eta horregatik, balio zenbatetsia 407.230 euroan zenbatetsi da.

AKATSAK	Esped. kop.	Esleipen zenbatekoa
<b>A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA</b>		
1. Erregulazio harmonizatuaren mende dagoen kontratua (SARA), EBAOn publikotasunik gabe .....	2	379
2. Esleipen-irizpide orokorrak eta zehaztu gabeko balorazio-irizpideak .....	2	379
<b>B ESPEDIENTEAREN BERARIAZKO ALDERDIAK</b>		

## **TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN 2018. URTEALDIRAKO FISKALIZAZIO-LANAREN ONDORIO TXOSTENARI ALEGAZIOAK.**

### **II. IRITZIA**

#### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

*“Mankomunitateak 2 zerbitzu-kontratu esleitu zituen 379.218 euroren zenbatekoan eta lizitazioa bere profilean eta GAOn argitaratu zuen; ez, ordea, EBAOn eta BOEn, nahitaezkoa dena, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz (ikus A.8).”*

#### **ALEGAZIOA**

Txostenak diharduen 2 kontratuak dira Tolosaldeko Mankomunitatearenak diren garbiguneetatik ahalmen handiko edukiontziak garraiatzeko zerbitzuen kontratua eta Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten herrietan hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko 2 Ingurumen hezitzaileen zerbitzua kontratatuzeko kontratua.

Tolosaldeko Mankomunitatearenak diren garbiguneetatik ahalmen handiko edukiontziak garraiatzeko kontratuaren lehen luzapenaren indarraldia irailan amaituko denez, 2020an kontratu hori erregularizatuko da.

Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten herrietan hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko bi ingurumen hezitzaile kontratatuzeko kontratuan berriz, pleguek 4 luzapen aurreikusi zituzten hori dela eta kontratuaren balio estimatua 407.203 eurotako zen. Kontutan hartuta kontratu horren lizitazioan Monakomunitateak ez zituela EBAOn eta BOEn beharrekota ziren iragakiak argitaratu, 2019 urtean ez zen luzapenik onartu eta berriro lizitazioara aterata kontratu berri bat formalizatu zen 2019ko azaroan.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ABREVIATURAS

BOE	Boletín Oficial del Estado.
BOG	Boletín Oficial de Gipuzkoa.
CRG	Consortio de Residuos de Gipuzkoa.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LRBRL	Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local.
NF 6/2007	Norma Foral 6/2007 Reguladora de Entidades Locales de Ámbito Supramunicipal de Gipuzkoa.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.





## I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado la Cuenta General de la Mancomunidad de Tolosaldea, en adelante la Mancomunidad, para el ejercicio 2018.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el ejercicio fiscalizado.
